


BIZIKLETATIK MENDIKO ESKIRA RUCA PILLAN (2860 m)

Beti egin izan dut bizikletan bidaiatzea amets, bai bizikletan bidaiatu aurretik eta baita ondoren ere. Inongo sekreturik ez duen errutina simple eta eder honek erabat asebetetzen nau; bizikleta, jan eta lo, mantra perfektua.

Argentinako azken kilometroetan

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Beñat Aizpurua Vázquez
(1991)

Bidaiatzea du gustuko;
abenturazalea eta mendizalea



Buenos Airesen udaberria heltzear da eta lore-hautsen gisan jaso nau hiriak. Bertako lagunaren sabaiepean eman ditut aurreneko hiru gauak, hemen beste mantra bat jarraitu ohi dute: matea, *asadoa*, matea. Zenbait topiko Argentinan ere bete egiten dira eta gustuz barneratu ditut.

Bizikleta prest dut jada. Alforjetan nahi baina pisu handiagoa dudan arren, zama arina da eta gustuz garraiatuko dut. Bihotzak ere badaramatza zenbait egun borborka eta pedalei eragiten hastea besterik ez zait falta.

Lurralde handi eta zabala dut aurrean, mendikate zorrotz bat urrunean eta beste herrialde luze eta estu bat Ozeano Barearen kostaldean. Ez dut ibilbide zehatzik buruan, baina norabidea argi dut, mendebaldera egingo dut, Buenos Aires hiriburutik Andeen magalean dagoen Mendoza hirirantz; gero gerokoak.

Aurreneko hiru egunek ingurunera egokitzeke balio izan ohi didate; paisaiak, usainak, soinuak, autoak eta jendea. Horietara ohitu ahala, nirekin dakartzadan beldurrak ere uxatu egiten dira, eta estimulu berrien beharrak ase nahian egiten dut aurrera.

Normalean, hurrengo eguneko lolekuaren arabera hautatu ohi dut ibilbidea. Aurrez, ni bezalako bidaiariekin jarri ohi naiz harremanetan eta gaua pasatzeko lolekua eskaini ohi didate. Benetan maite dut bidaiatzeko era hau. Ezezagunen etxean sartzeak, bertako arauetara, ohituretara eta egunero-kora egokitzea dakar, eta noski, jendearekin sortzen dudan harreman estuak askotan betirako dirau. Hasiera batean, gau bakarra pasa ohi dut haienean, baina zenbaitetan egonaldia hiruzpalau egunera luzatzen da. Batzuetan, ohe goxoa izaten dut esperoan, besteetan egongelako sofa, eta kasurik urrietan sukaldako zoruan lokartu izan naiz.

Horrelaxe egin ditut lehen egunak, lautada luzeetan barrena, bazterretan interes handiko ezer gutxi topatu dut; monokultiboa nonahi: soja, garia, artoa, eta errepeidea. Argentinarek jan ohi duten okela kantitate handiaren arrastorik ez.

Estimulu berrien beharrak ase nahian egiten dut aurrera; benetan maite dut bidaiatzeko era hau. Ezezagunen etxean sartu eta jendearekin sortzen dudan harreman estuak askotan betirako dirau

Astebete inguru daramat kilometroak pilatuz, baina gaurko lolekua urrutiegi dut eta ehungarren km-ra iritsi aurretik hasi naiz gauerako leku bila. Honetan ni baina esperientzia handiago dutenek suhiltzaileengana jotzea gomendatu ohi dute, haiek beti omen dute eta lotarako zirrikituren bat, baina gaurkoan ez dut zorterik izan eta interneta erabiltzeko sare bila jo dut gasolindegira. Kafetxoa hartu eta berriketan hasi naiz bezeroekin. Armstrong izeneko herrian nago, 15000 biztanle baina zertxobait gutxiago dituen herrixka bat da, eta



Gaurko lo-lekua


kanpotarren presentzia ez da oso ohikoa. Han, denek dute elkarren berri, eta azkar batean jakin dute ni ere iritsi naizela. Alkateari pare bat dei egin eta bi orduren buruan bi motozale etorri zaizkit bila. Haiek eraman naute belardi txukun batetara. Alboan komuna dut, argia gau osoan pizturik eta segurtasun-kamerak ezker-eskuin. Bertan jarri dut kanpindenda. Lokartu aurretik polizia ere etorri zait bixitan. Gaueko haize hotsak lo sakona galarazi didan arren, atsedean hartu ahal izan dut eta goizeko eguzki goxoarekin batera bildu dut dena. Irten aurretik, gasolindegira agurtzera bueltatu naiz, bertan bainuen gosaria esperoan, dohain eta gozo. Ezin da besterik eskatu.

Hurrengo egunak ere antzerakoak izan dira, panpazko ordeketan barrena egin baititut hainbat kilometro, baina egunak pasa ahala soja-zelaiak gutxitzen joan dira eta mahasti zein olibondoen presentziak ingurua erabat edertu du. Mendoza hiria agertu aurretik azaldu dira Andeatako menditzarrak. Neguko elurrak jada urtzen ari diren arren, badira urte osoa zuriz jantzirik dirautenak; La Plata da horietako bat, 6000 metrora oso gutxigatik iristen ez den mendia, eta urrutitik bada ere, haren edertasunak txunditurik utzi nau.

Andeen magalean izan dut mendiekin nire lehen kontaktua, lehenik eta behin begi-bistaz, eta ondoren, Argentina eta Txile arteko muga bi gurgipen gainean zeharkatuz. Mendozatik Txilera sartu arteko bideak gora egiten du eten gabe, eta txiki sentitzen naiz mendi erraldoi hauen altzoan; konturatzerako Ameriketako mendirik garaiena agertu zait aldamenean. Errepide albora baztertu eta elkarri begiratu diogu; Aconcaguaren begiradak erabat uzkurto nau eta Txilera bidean jarraitu dut. Gorantz jarraitu dut, hiru mila metroko altuera aspaldi utzi ditut atzean, eta estatuen arteko muga, hiru kilometroko tunela mugazainen auto gainean egin behar izan dut, Andeak zeharkatuz.



Ruca Pillan sumendia



Txilera sartu eta haize bortitzarekin egin dut topo, barraskilo itxurako hamaika bihurgunez osaturiko errepidean egin behar izan dut behera. Paisaia ere erabat aldatu da; berdez jantzi da ingurunea. Herrialde estua da hau, eta bi egun behar izan ditut Ozeano Barearen kresalaz zipriztintzeko. Concón herrian jarri dut egun batzuetarako oinarritzko kanpalekua eta bertako lagun Michelangelok oheaz gain, lana ere eskaini dit. Hiru egun eman ditugu lekeitiar jatorriko familia baten etxeko hormak margotzen. Goizean lana eta arratsaldean hondartza. Bare izeneko Ozeano honen urak Pirinioetako ur freskoa dakarkit gogora eta eguzkitan berotu dut gorputza. Lagun talde polita osatu dugu, eta haietako batek bi aste barru Araucanía eskualdeko sumendi bat eskiatzeko asmoa duela esan digu. Ez dut zalantzarik egin, bertan ikusiko dugu elkar. Pare bat aste ditut bizikletan Pucón herrira iristeko; lagunak autobusean egingo du 1000 km pasatxoko tartea, eta nik Panamericana errepidea hartuko dut ardatz, hura baita bertara iristeko modurik azkarrena. Bidean, Valparaíso, Santiago eta abar ezagutu eta berriro ere Andeetarako bidetara heldu diot itsu-itsuan. Han azaldu dira bata bestearen alboan kono itxurako bi sumendi elurtu: Pillanzegün edo Lanin (3776 m) eta Ruca Pillan (2860 m). Azken hau izango da gure helburua.

Ruca Pillan, Amerikako sumendirik aktiboenetariko bat da eta maputxeen lurretan dago kokaturik. Horixe bera du jatorrizko izena, baina egun Villarrica sumendia izenez ere ezaguna da. 2860 metroko garaiera duen kono perfektua da, gaina elurrez estalia dago eta mendi-oina baso mardulez. Azken erupzioa duela bederatzita urte izan bazen ere, azken bi urteotan kraterrean hurbiltzea debekatuta egon da sumendiaren erupzio arriskuagatik. Zorionez, gu iritsi aurreko egunetan hurbiltzeko baimena eman dute berriro ere.

Bakea arnasten da altitude hauetan eta aurrean ditugun sumendi elurtuei so geratu naiz pentsakor

Iritsi da Lucianorekin elkartzeko unea. Duela hamabost bat egun hondartzan ezagutu eta gaur sumendia parez-pare dugula elkar agurtu dugu. Paisaia eta egoera erabat ezberdina dugu aurrean, baina bizi-gogoz gainezka gaude biok. Alforjetako pisua alboratu eta eskien pisu arinean gora egiteko momentua iristear da. Erronka ez da makala, bihar goizean ia 2000 metro positibori egin beharko baitiogu aurre. Pucón herrian beharrezko materiala alokatu eta prest gara jada. Lagunaz gain, beste bi bidelagun txiletar ere izango ditugu alboan, Mauro eta Gonzalo.

Orain bai, ordu-erdi inguru oinez egin ostean, elurra zapaldu bezain laster, iritsi da eskiak zein larruak jartzeko unea. Inongo aztarnarik gabeko bidea dugu aurretik eta zerua goibel dago. Erritmo arinean abiatu gara, behe-lainoa lagun, baina altuera hartzarekin batera gandua atzean utzi eta zeru oskarbian topatu dugu gure gailurra. Hala ere, oraindik zenbait ehunka

metro gainditu beharko ditugu, eta pendizari sigi-sagan egin behar izan diogu aurre, malda ez baita nolana hikoia. Kopeta altxa eta kraterra osatzen duten arroka ilunak agertu zaizkigu begien aurrean. Arnasa berreskuratzeko pare bat geldialdi egin eta tontorrera bidean jarraitu dugu. Goraka goazen heinean, malda are eta gehiago zorroztu da eta kranpoirik erabili beharrik izan ez dugun arren, eskiak bizkarreratuta egin behar izan ditugu azken metroak. Bertan aurkitu dugu berrehun bat metroko kraterra, kea zeriola, eta fumarolaren sufre-usaina barruraino sartu zaigu.

Ozeano Bareko Suzko Eraztunean gaude, milaka kilometrotik gora dituen erabateko lur ezegonkorren gainean; hemen erabat bizirik senti daiteke edonor. Merezitako geldialditxoak egin eta lagunaren hitzak isil-isilik entzuten eman ditut minutu batzuk. Bakea arnasten da altitudetako hauek, eta aurrean ditugun sumendi elurtuei so geratu naiz, pentsakor. Aurretik egindako bidea datorkit gogora, pedal-kolpe bakoitzean ezagututako jende guztia, eta oraindik egiteko dudak bide lausoa ere gero eta argiago ikusten dut hemen gainetik. Eztarria busti eta beherako bideari ekin diogu. Oraingoan, alboko mendi-hegaletik ekitea erabaki dugu. Bart gaueko elurrak geruza irristakor ezin hobea utzi digu eta gainbehera gozoan murgildu gara, sumendiaren magalean dagoen aintzira handia aurrez aurre dugula. Sekula ahaztuko ez dudak jaitziera egin dugu eta gure poz aurpegiak agerikoak

Lainoa gibelean kraterrera bidean



Ruca Pillan sumendiaren krater ertzean laurok

dira. Benetan ederra eta emankorra izan da gaurkoa, eta mokadua partekatuz eman diogu amaiera egunari.

Latitude hauetako beroa ere pixkanaka nabaritzen hasia naizenez, hegoaldeko glaziarren bila ekitea erabaki dut. Bizikleta gainean jarri eta Patagoniako lur basatietan barneratuko naiz hurrengo egunetan. Hemen ere izango dut mendia eta abentura. Bizitzak aurrera darrai!

